BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1427

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 7koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2013ko urriaren 23ko Aginduko laguntzen onuradun-zerrenda jendaurrean jartzekoa. Agindu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalentzako laguntzetarako 2013ko ekitaldiko deialdia egin zuen.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2013ko urriaren 23ko Aginduak 2013ko ekitaldirako diru-laguntzak iragarri zituen Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalentzako, euskal nekazaritza-sektorearekin zerikusia duten gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren hizketakide modura egindako lana dela-eta.

Agindu horretako zazpigarren erabakiak ezarritakoa betez, eskatutako laguntzak esleitu dira Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren ebazpen bidez.

Ebazpenak onuradunei jakinarazi ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateratua onetsi zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2013ko urriaren 23ko Aginduak araututako laguntzen onuradun-zerrenda argitaratzea, guztiek ezagut dezaten. Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalentzako laguntzetarako 2013ko ekitaldiko deialdia egin zuen agindu horrek. Ebazpen honen eranskinean jasota dago zerrenda hori.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jar diezaiokete Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 7a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

ERANSKINA

EUSKAL NEKAZARITZA-SEKTOREAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIETAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIKO HIZKETAKIDE MODURA JARDUTEKO LAGUNTZAK

Onuradunak	Dirulaguntza eurotan
UAGA	67.602,00
ENBA – Gipuzkoa	28.656,37
EHNE – Gipuzkoa	38.945,63
ENBA – Bizkaia	31.802,75
EHNE - Bizkaia	35.799,25